

Herri Norte Taldeko 5 kide atxilotu dituzte

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 22/03/2024

Atxilotuei «desordena publikoak, gorroto-delituak, lesioak, mehatxuak eta kalteak» leporatzen dizkiete eta gainera ikertua mantentzen dute seigarren kide bat.

Ertzaintzak Herri Norte taldeko bost kide atxilotu ditu gaur goizean. Atxilotuak Bilboko ertzain-etxera eramán dituzte momentuz, Guardiako Epaitegian epailearen esku utzi arte. Atxilotutako pertsoneri «desordena publikoak, gorroto-delituak, lesioak, mehatxuak eta kalteak» leporatu dizkiete Bilboko ostalaritza-lokal batean eman ziren gertakarién harira. Egun horretan, otsailaren 29an, Athleticék eta Atlético Madrilek Kopako partida jokatu aurretik bi taldeko zaletuen artean liskarrak egon ziren San Mames estadioetik gertu dagoen ostalaritzako lokal batean. Gainera, beste gizon bat ere ikertzen ari dira, beraz, ez da baztertzen atxiloketa gehiago egotea.

Gertakari hauen aurrean Herri Norte Taldeak atxilotuen askatasuna exijitu du sare sozialen bidez.

<https://eh.lahaine.org/herri-norte-taldeko-5-kide>